Bestelako Xedapenak

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

110

EBAZPENA, 2009ko azaroaren 20koa, Justizia Administrazioa Eraberritzeko zuzendariarena, auzitegiko medikuen kidegorako oposizioak prestatzeko diru-laguntzak emateko deialdia ebazten duena. Deialdi hori Justizia eta Herri Administrazio sailburuaren 2009ko maiatzaren 28ko Aginduaren bitartez egin zen.

Justizia eta Herri Administrazio sailburuaren 2009ko maiatzaren 28ko Aginduaren bitartez (ekainaren 30eko EHAA, 123 zk.), auzitegiko medikuen kidegora sartzeko oposizioak prestatzeko diru-laguntzak emateko arauak finkatu ziren. Agindu horretan ezarritakoaz bat etorriz eta Hautaketa Batzordeak, zeina aipatutako aginduan izendatutakoez osaturik baitago, azaroaren 19ko bileran egin zuen proposamena kontuan hartuta, hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.–

1.– Beken esleipena bertan behera uztea eskatzailerik ez delako egon.

2.– Ordezkoen zerrenda ere bertan behera uztea, arrazoi beragatik.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Justiziako sailburuordeari, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik aurrera hilabeteko epean, hala xedatzen baita azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 107. artikuluan eta hurrengoetan.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko azaroaren 20a.

Justizia Administrazioa
Eraberritzeko zuzendaria,
ANA MOLINA ALDAREGUIA.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

110

RESOLUCIÓN de 20 de noviembre de 2009, de la Directora para la Modernización de la Administración de Justicia, por la que se resuelve la convocatoria de ayudas económicas efectuada por Orden de 28 de mayo de 2009, de la Consejera de Justicia y Administración Pública para la preparación de oposiciones al Cuerpo de Médicos Forenses.

De conformidad con lo establecido en la Orden de la Consejera de Justicia y Administración Pública de 28 de mayo de 2009 (BOPV n.º 123 de 30 de junio), por la que se dictaban normas destinadas a la concesión de ayudas económicas para la preparación de oposiciones al Cuerpo de Médicos Forenses y a propuesta de la Junta de Selección reunida el día 19 de noviembre e integrada por los miembros designados en la Orden mencionada.

RESUELVO:

Primero.–

1.– Declarar desierta la adjudicación de las becas dada la inexistencia de solicitantes.

2.– Declarar desierta, por el mismo motivo, la posible lista de sustitutos/as.

Segundo.– Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada ante el Viceconsejero de Justicia, en el plazo de un mes contado a partir de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 107 y siguientes de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre.

En Vitoria-Gasteiz, a 20 de noviembre de 2009.

La Directora para la Modernización
de la Administración de Justicia,
ANA MOLINA ALDAREGUIA.